

# getxoBerri

## ESKERRIK ASKO BIHOTZ-BIHOTZEZ!

Bizi dugun salbuespeneko egoeraren aurrean, **ESKERRIK ASKO BIHOTZ-BIHOTZEZ** esan nahi diet getxotarrei, egun hauetan Koronabirusaren ondorioz bizi dugun eta hurengo egunotan izango dugun egoera zailean ematen ari zareten erantzun zibikoagatik.



Eskerrik asko etxean geratzean erakusten ari zareten erantzukizunagatik, eta eskerrik asko merkatariei, ostalariei eta baita hirirako funtsezkoak diren zerbitzuetako langileei ere, osasun arloko langileak, udaltzainak, garbiketakoak...

Ez dezagun guardia jaitsi, etorkizun zail bati aurre egin behar diogulako eta horretarako pertsona guztien laguntza behar izango delako. Eskertzen diegu dagoeneko hori egiten ari direnei. Jarrai ditzagun arretaz agintarien gidalerroak, denon esku baitago egoera gaintzea.


Udala lanean ari da, ahal den neurrian, herritarrei eta hiru-garrenei oinarriko zerbitzuak eta bestelakoak bermatzeko, posible den zerbitzuetan urrutiko lana erabiliz. Aldi berean langileen osasuna zaintzen ari gara. Hori guztia, egoerak une bakoitzean eskatzen dituen aldaketan mende dago.

*Getxoberri*-k ere agertoki berezi bati egingo dio aurre. Udalak eta bere gobernu-organismoek hartutako erabakien berri emateko sortu zen argitalpena da, eta funtsean informazio horretaz eta udal-erakunde autonomoek eta elkarte-sareak sortzen dutenaz elikatzen da, bertan behera geratu dena osasun-larrialdiko eta Alarma-egoerako testuinguruan. Argitalpena, era berean, egoeraren bilakaerak baldintzatuta egongo da.

Espero dugu normaltasun galdia, lehenbailehen, berreskuratzea eta egoerari aurre egin ahal izatea, Getxo, bertako jendea eta jarduerak askatasunez gozatzeko.

#Etxeangeratu  
#Aurreraaterakogara

Amaia Agirre  
Getxoko Alkatea



# EGOERA GETXON

(Datuak alea idazterakoan eta egoerak une bakoitzean eskatzen dituen aldaketan mende. Kontsultatu gaurkotasanak:

<https://www.getxo.eus/eu/servicios/avisos/1243>)

## Krisi Mahaia eta 0 Mailako Larrialdi Plana aktibatuta

(Bertan behera utzi dira Udaleko eta haren erakunde autonomoetako Gobernu-batzarrak, Informazio-batzordeak eta Zuzendaritza-batzordeak)

### Hiritarren arreta

Herritarrentzako Arreta Bulegoak eta KIUB itxita. Oraingoz, Udaletxeko HABa bakarrik dago irekita EZINBESTEKO errolda- eta erregistro-izapideak egiteko.

\* Gestioak: Administrazio elektronikoko bulegoa

\* Call Center: 010, Getxotik deitzen bada

\* Telefono bidez: 94 466 00 00

### Gizarte Zerbitzuak

\* Andra Mariko bulegoa itxi da. Gizarte Zerbitzuen gainerako bulegoetan telefono bidez ematen da arreta, eta ez aurrez aurre, GLLak izapidetzeko izan ezik. Kasu horretan, herritarrek Romoko eta Algortako bulegoetan aurkez dezakete dokumentazioa. Herritarrei eskatzen zaie ez joateko, behar-beharrezkoa ez bada. Zalantzak telefonoz kontsulta daitezke.

\* Itxita udal egoitzako Eguneko Arreta Zerbitzua eta udalerriko adinekoen elkarteak lekutzen diren udal gunekak, hau da, Ajane Algortan, Urte Alaiak Andra Marin eta Ibar Nagusien Etxea Romon.

\* Zaintzaileentzako tailerrak bertan behera geratu dira.

\* Gobelaurre Boluntarioritza Zentroa itxita dago.

\* Jabekuntza Eskolaren programazioa bertan behera geratu da.

\* Familien Eskolaren ikastaroak bertan behera geratu dira.

\* Atzeratuta Zurrumurrurik Ez urteko Topaketa, Romo Kultur Etxean martxoaren 21erako aurreikusita.

### Jesusen Bihotza egoitza

\* Udal Egoitzarako bisitak bertan behera geratu dira. Egoitza etengabe dago harremanetan Eusko Jaurlaritzarekin, Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin ere, jarraibideak eta gomendioak jarraitzeko. Edozein zalantza izanez gero, deitu 94 403 47 40 telefonora.

### Kultur Etxeak eta Muxikebarri

\* Algortako Kultur Etxea (Villamonte) eta Romo Kultur Etxea itxita (udal euskaltegia, liburutegia, Bebeteka, Gazteleku, aretoak, tailerrak eta adinekoentzako jarduerak, ikastaroak eta zerbitzuak bertan behera geratu dira) eta baita Algortako Gazteleku, Areetako Ludoteka eta Torrenera erakusketara ere.

\* Abisua eman arte, Kultur Etxeak antolatutako ekitaldiak bertan behera geratu dira, bai zentro horietan (Emakumeak eszenan, erakusketak, tailerrak, ikastaroak, ipuin-kontaktak, literatura-solasaldia, liburu-aurkezpenak, olerki-kluba, haur tailerrak...), bai Areetako Musika Eskolan (Zine-kluba eta igandeko Haur Zinema) bai eta beste zenbait kokapenetan (Getxo Live).

\* Muxikebarrin martxoan programatutako hurrengo ekitaldiak bertan behera geratu dira: *Lloviendo ranas* antzerkia (21), *Revólver* taldearen kontzertua (27), *Zinemabarri* (26) eta *Zinemaxiki* (22 eta 29). Ekitaldi horietarako sarrerak txartelaz erosi dituztenei hurrengo 15 egunetan itzuliko zaie dirua, ezer egin gabe. Erosketa esku dirutan izan bada, Muxikeba-

rriko txarteldegian eskatu ahal izango dute alarma egoera eteten den egunaren biharamunetik aurrera. Kultur Etxearekin harremanetan jartzeko: [kulturetxea@getxo.eus](mailto:kulturetxea@getxo.eus).

\* Liburuen maileguak automatikoki luzatuko dira gutxienez alarma egoera eteten arte. eliburutegia webgunea erabil daitezke. Posta elektronikoa: [villamonte.liburutegia@getxo.eus](mailto:villamonte.liburutegia@getxo.eus) eta [sannikolas.liburutegia@getxo.eus](mailto:sannikolas.liburutegia@getxo.eus)

Eguneratzeak

<https://www.getxo.eus/eu/aula-de-cultura/noticias/340>

### Getxo Kirolak

\* Kiroldegi guztiak itxita (Fadura, Gobela, Andra Mari) eta ikastaroak eta jarduerak etenda martxoaren 28ra arte. Eteteko eta konfinatzeko derrigortasunak jarraitzen badu, apirileko fakturazioaren ondorio ekonomikoetarako hartuko da kontuan.

Lehiaketa guztiak etenda, maila guztietan.

### Andrés Isasi Musika Eskola

\* Areetako eta Algortako Andrés Isasi Musika Eskolaren bi zentroak itxita daude.

### Jolas-eremuak eta igogailuak

\* Jolas-eremuak itxita daude.

\* Igogailu publikoetan pertsonen kopurua mugatuta dago. Ereagakoa itxita erabilera eskasagatik, eta ez mugikortasun-arazoengatik.

### Ingurumena eta TAO

\* Bertan behera utzi da TAOren gaineko Ordenantzaren aplikazioa, alarma-egoerak irauten duen bitartean.

\* Udalaren garbiketa-zerbitzua indartu da: presiozko ur beroarekin, hidro-garbigailuekin gaikako bilketako edukiontzietarako, era jarraituan, eta desinfektatzailea, eta baita Fadura zentralerako ur beroaren aprobetxamenduari ere, galtzada zonaldeka baldekadak egiteko. Hiru txandatan lan egiten ari da.

\* Ingurumen Areetako bertan behera utzi ditu jarduerak guztiak.

\* Getxo Bizi txirringak mailegatzeko zerbitzua eta Puntu Garbia etenda.

### Ekonomia Sustapena

\* Getxolaneko aurrez aurreko jarduerak guztiak bertan behera geratu dira. Arreta indibidualak baliabide telematikoen bidez egin daitezke (Skype/telefonoa/e-maila...).

\* Coworking gunea ere itxita dago.

### Turismoa

Ereagako Turismo Bulegoa itxita dago.

### Guztion artean elkartasun sare antolatua

Informazio gehiago:

<https://bit.ly/39YEZ1C>

